

**ERABAKIA, 2001eko OTSAILAREN 22koa, GOBERNU  
BATZARRARENA, IRAKASLEEN ZUZENDARI KARGU  
AKADEMIKOA SORTZEKO DENA.**

*1983tik aurrera Unibertsitatearen Erreformatarako Legeak sailen egitura sendotzea ekarri zuen eta horrek, unibertsitateko irakaskuntza jarduera eta ikerketakoa antolatzeak dakartzan zailtasunekin batera –izan ere, horiek antolatzeko batetik ikastegietako beharrianak eta bestetik, sailek irakaskuntzako beharrianak asetzeko dituzten aukerak izan behar dira kontuan- irakasleen gestioa erraztuko duen kargu bat (irakasleen artetik aukeratua) sortzea edo egokitzea komenigarria dela erakutsi digu.*

*Beharrian hori are premiazkoagoa da UPV/EHUn, batetik campusak sakabanatuta izateak eta bestetik, hainbat ikastegi izateak, azken urteetan irakasle-kopurua nabarmen handitzea eragin baitute.*

*Bestalde, Unibertsitatea goi mailako hezkuntza eskaintzen duen zerbitzu publikoa izanik, gizarteak zerbitzu hori ahalik eta kalitate handienarekin eskaintzean eskatzen du.*

*Unibertsitatearen kalitatea hobetu gurean eta gure giza baliabideak eraginkorrak izateko gogoan, orain arte abian jarritako ekimenen ildo beretik (irakats-eskaintza eta irakasleen irakats-betebeharrak zehazteko jardunbide bateratua eta Irakasleen Gestiorako Ibiltorria), aurrera goaz irakaskuntzaren planifikazioa hobetzeko bidean, horren guztiaren bidez irakasle eskaria hobeto asetzeko eta gizarteko egoerei erantzun egokiagoak emateko. Planifikazioa giza baliabideen gestiorako bide ez ezik, irakasleen politikarako baliabide eraginkorra ere bada, eta, beraz, planifikazio hori erabat osatzeko, beharrezko da erakundeak berak mekanismoak ezartzea.*

*Helburu horrekin, Gobernu Batzarrak, 1999ko otsailaren 3ko bileran, Zerbitzuen Ikuskaritzaren Egitura eta Eginkizunei buruzko Arautegia onartu zuen. Arautegi horretan jasota dago Ikuskaritza Zerbitzuko zuzendariaren kargua, bai eta hasiera batean zerbitzu horrek izango dituen eginkizunak ere.*

*Hala ere, ikusita adierazikoez gain badirela beste funtzio eta eskumen batzuk zerikusia dutenak sail bakoitzean irakasleen arlorako dituzten politikak zehaztu, koordinatu eta jarraipena egitearekin eta plantila teorikoa eguneratzeko lanekin, Errektoreordetza honen ustez egoki da gaur egungo irakaskuntza-egituran irakasleen zuzendariaren plaza sortzea, zuzendari horrek Ikuskaritza Zerbitzuari hasiera batean emandako eginkizunak eta lerroalde honetan zehaztutakoak bete*

*ditzan irakasleen plantilako zuzendariarekin batera eta ikastegietako zuzendari/dekano eta saileko zuzendariarekin lankidetzan.*

*Horrela, bada, Irakasleen Errektoreordetzaren proposamenari jarraituz, Gobernu Batzarrak honakoa*

## **ERABAKI DU**

*Lehenengoa.- Irakasleen Zuzendari kargu akademikoa sortzea, Irakasleen Errektoreordetzari lotuta. Zuzendari horrek Ikuskaritza Zerbitzua zuzenduko du.*

*Bigarrena.- Zuzendariaren eginkizunak, ordainsariak eta liberazioa onartzea, erabaki honetako eranskinean jasotako eran.*

*Hirugarrena.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Gobernu Batzarrari hilabeteko epean; bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, hilabete biko epean. Berraztertze errekurtsuari berariazko ebazpena eman ezean hilabeteko epean, errekurtsoa ez dela onartu ulertu beharko da.*

*Leioa, 2001eko otsailaren 22a*